

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

2022 ORDENANTZA FISKALAK

ORDENANZAS FISCALES 2022

.1.- ZERGAK

▪ **ERAIKUNTZA, INSTALAKUNTZA ETA OBREN GAINEKO ZERGA.**

- Etxebizitzetan egiten diren obrak:

25.000€bitarteko aurrekontua: %2,5
25.000€-tik gorako aurrekontua: %4

- Nekazaritza edo abeltzaintzako ustiakuntzetan egiten diren obrak eta nekazaritza edo abeltzaintzako ustiakuntza bati lotutako etxebizitzetan egiten diren obrak, beti ere ustiakuntza hori mantentzen den bitartean..... %1

- Beste edozein motako obra:
%4,5

Hobariak

a) Isolamendu termiko bidez etxebizitzetako inguratzaille termikoaren birgaikuntza, Eraikuntzaren Kode Teknikoak xedatutakoaren arabera:

%95eko hobaria

b) Etxebizitzen etxaurre osoaren margotzea:

%45eko hobaria

c) Eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzeko obratan. Beti ere,

1.- IMPUESTOS

▪ **IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.**

- Obras en viviendas:

Presupuesto hasta 25.000€: 2,5%
Presupuesto superior a 25.000€: 4%

- Obras en explotaciones agropecuarias, y obras en viviendas vinculadas a explotaciones agropecuarias, siempre que se mantenga dicha explotación..... 1%

- Cualquier otro tipo de obra: 4,5%

Bonificaciones

a) Rehabilitación de envolvente térmica de viviendas con aislamiento térmico, cumpliendo las determinaciones del Código Técnico de la Edificación:

Bonificación del 95%

b) Pintado integral de fachadas de viviendas:

Bonificación del 45%

c) Construcciones, instalaciones u obras en las que se incorporen sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Ordenantza fiskal hau indarrean sartzen denean eraikita dauden etxebizitzatan egiten diren instalazio hauen obrengan izango da aplikagarri eta ez obra edo eraikin berriengan.

%95eko hobaria

d) Eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten edota 65 urtetik gorako pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

% 95eko hobaria

Hobari hau aplikatzeko ondorengo **baldintzak** bete beharko dira:

* Ezgaituen kasuan:

Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.

Mugikortasun baremoan, gutxienez 7 puntu izatea.

* 65 urtetik gorako pertsonen kasuan:

Adina egiaztatzen duen agiria.

Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duen edota 65 urtetik gorako pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.

Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere

energía solar. En todo caso, será de aplicación esta bonificación cuando se traten de obras, construcciones o instalaciones realizadas en inmuebles existentes en la entrada en vigor de esta Ordenanza fiscal, no siendo de aplicación las realizadas en inmuebles de nueva edificación.

Bonificación del 95%

d) Construcciones, instalaciones y obras que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de las personas con discapacidad o personas mayores de 65 años.

Bonificación del 95 %

La aplicación de la bonificación se ajustará a las siguientes **condiciones**:

* En caso de personas con discapacidad:

Estar en posesión de la calificación de discapacidad.

Haber obtenido una puntuación mínima de 7 puntos en el baremo de movilidad.

* En caso de personas mayores de 65 años:

Documento acreditativo de la edad.

Se tomará en consideración el presupuesto total de la obra para el cálculo de la cuota, siempre que la obra a realizar esté destinada únicamente a la adaptación del edificio para favorecer las condiciones de acceso y habitabilidad de las personas con discapacidad o personas mayores de 65 años.

En el caso de que las obras estén destinadas a la reforma de la edificación, comprendiendo en



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizia aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

HIRI IZAERAKO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA:

-Gune industrial edo tertziarioetan kokatutako ondasunak: % 0,4000

-Gainerako gunetan kokatutako ondasunak: %0,1665

Hobariak

a. Babes Ofizialeko etxebizitzak %50eko hobaria, behin – betiko kalifikazioa jaso eta hiru urteko epean.

b) Energia berriztagarriko sistemak instalatu dituztenentzako, eraikuntza berriko etxebizitzetara izan ezik:

.- Zerga-kuota osoaren %45eko hobaria, "A" kalifikazio energetikoa duten eraikinentzat.

.- Zerga-kuota osoaren %30eko hobaria, "B" kalifikazio energetikoa duten eraikinentzat.

el presupuesto más partidas además de la adaptación de dicha edificación para favorecer las condiciones de acceso y habitabilidad de las personas con discapacidad, únicamente se computarán para el cálculo de la cuota con derecho a bonificación las partidas correspondientes. Para ello será necesario que el presupuesto se presente desglosado en la parte que corresponda a obras que favorezcan dichas condiciones.

IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES DE NATURALEZA URBANA:

- Bienes situados en zona industrial o terciaria: 0,4000 %

- Bienes situados en las restantes zonas: 0,1665%

Bonificaciones

a) El 50% de la cuota, las viviendas de protección oficial, durante un plazo de 3 años contados desde el otorgamiento de la calificación definitiva.

b) Los edificios que instalen sistemas de ahorro de energía renovables, a excepción de las viviendas de nueva construcción:

.- El 45% de la cuota, para edificios cuya calificación energética sea "A".

.- El 30% de la cuota, para edificios cuya calificación energética sea "B"

Aurkeztu beharreko agiriak honako hauek

La documentación a presentar será la



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

izango dira:

.- Eraikinaren energia-eraginkortasunaren ziurtagiria, 10 urtero berritu eta Udaletxean aurkeztu behar izango dena.

c) Zerga - kuota osoaren %50eko hobaria etxebizitza hutsei buruz onartutako Bizigune edo antzeko programen barruan erabilera-lagapena dutenei.

d) %50eko hobaria aplikatuko da subjektu pasiboak famili ugarien titular direnean eta egoera hau egiaztatzen duten bitartean.

Hobaria aitortzeko halabeharrezko **baldintza eta aurkeztu beharreko agiriak** honako hauek dira:

.- Familia ugarien ohiko etxebizitza izan beharko da. Baldintza hau biztanle eroldaren bidez egiaztatuko da.

.- Etxebizitzaren balio katastrala 150.000,00 euro edota hortik beherakoa izan beharko da. Baldintza hau OHZ-ren ordainagiriaren aurkezpenaren bidez egiaztatuko da.

.- Beharrezkoa izango da Foru Aldundiko Gizartegintza Zerbitzuak igorritako indarrean dagoen familia ugariaren titulua.

Eskariak aurkezteko epea: urtarrilaren 1etik otsailaren 28rarte.

Zergaren ordainagirian etxebizitzaz gain garaje, trasteleku etab. jasotzen badira, hobaria etxebizitzari dagokion kuotaren gainean aplikatuko da soilik.

Hobari hau bateraezina izango da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan aplikagarri diren

siguiante:

.- El certificado de eficiencia energética, que deberá ser renovado y presentado en el Ayuntamiento cada 10 años.

c) El 50% de la cuota, las viviendas vacías que se adhieran al programa Bizigune o similares.

d) Se aplicará una bonificación del 50% a favor de aquellos sujetos pasivos que ostenten la condición de titulares de familia numerosa y mientras acrediten dicha condición.

Los **requisitos y documentación** a presentar para su concesión son los siguientes:

.- Deberá constituir vivienda habitual de las familias numerosas. Para ello, se comprobará en el padrón de habitantes dicha condición.

.- Será necesario que el valor catastral de la vivienda sea igual o inferior a 150.000,00 euros. Este aspecto se acreditará mediante una copia del recibo del IBI.

.- Será necesaria la presentación del título de familia numerosa en vigor emitido por el Departamento de Servicios Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Plazo de solicitud: Del 1 de enero al 28 de febrero.

En el supuesto de que el recibo del impuesto incluya además de la vivienda, otros anejos como garaje, trastero, etc., la bonificación se aplicará exclusivamente sobre la parte de la cuota que corresponda a la vivienda.

Esta bonificación será incompatible con cualquier otra aplicable al Impuesto sobre Bienes



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

bestelako hobariekin.

Udalak urtero, aurretik hobari honen aplikazioa eskatu duten subjektu pasiboek berau jasotzeko baldintzak betetzen jarraitzen dutela ikuskatuko du, horretarako egoki deritzon agiriak eskatu diezaiekeelarik.

LANDA-LUR IZAERAKO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA:

- Landalur –ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,6000

LORZORU HIRITARRAREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

I. PORTZENTAI TAULA

<u>Sorraldia</u>	<u>Koefizientea</u>
Urtebetetik behera.....	0,14
Urte bat.....	0,13
2 urte.....	0,15
3 urte.....	0,16
4 urte.....	0,17
5 urte.....	0,17
6 urte.....	0,16
7 urte.....	0,12
8 urte.....	0,10
9 urte.....	0,90
10 urte.....	0,80
11 urte.....	0,80
12 urte.....	0,80
13 urte.....	0,80
14 urte.....	0,10
15 urte.....	0,12
16 urte.....	0,16
17 urte.....	0,20
18 urte.....	0,26
19 urte.....	0,36
20 urte baino gehiago.....	0,45

Karga tipoa: 10,00%

Inmuebles.

Será el Ayuntamiento el que anualmente compruebe que los sujetos pasivos que hayan solicitado en otros períodos la aplicación de esta bonificación, siguen cumpliendo los requisitos para su obtención, pudiendo requerirles para ello, la documentación que estime oportuna.

IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES DE NATURALEZA RÚSTICA:

- Carga de la tasa aplicable al impuesto de bienes inmuebles de naturaleza rústica: 0,6000%

IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DEL VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA

CUADRO DE PORCENTAJES

<u>Período de generación</u>	<u>Coeficiente</u>
Inferior a 1 año.....	0,14
1 año.....	0,13
2 años.....	0,15
3 años.....	0,16
4 años.....	0,17
5 años.....	0,17
6 años.....	0,16
7 años.....	0,12
8 años.....	0,10
9 años.....	0,90
10 años.....	0,80
11 años.....	0,80
12 años.....	0,80
13 años.....	0,80
14 años.....	0,10
15 años.....	0,12
16 años.....	0,16
17 años.....	0,20
18 años.....	0,26
19 años.....	0,36
Igual o superior a 20 años.....	0,45

Tipo de carga: 10,00%



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Hobariak

Lurren eskualdatzeetan eta jabaria mugatzeko gozamen-eskubide errealak eskualdatu edo eratzean, baldin eta eskubide horiek heriotzagatiko irabazi-asmoaren bidez egiten badira, hobari bat aplikatuko da zergaren kuotan, adierazitako ehunekoaren arabera, baldin eta eskuratzailleak lehen graduako ondorengoak edo adoptatuak badira, lehen mailako aurrekoak edo adoptatzaileak, eta ezkontidea edo izatezko bikotea, izatezko bikoteak badira eta Eusko Legebiltzarrak 2003ko maiatzean xedatutakoaren arabera eratu badira. Hobariak aplikatzeko, eskuratutako ondasuna jaraunsearen ohiko etxebizitza izan beharko da, eta haren diru-sarrerara gordinetik tarte hauetako batean egon beharko dute:

% 95era arte, 27.200,00 euro.

% 75, 37.200,00 euro arte.

% 50, 47.200,00 euro arte.

Gainerako diru-sarrerak: %10.

Hobari hori aplikatzeko, subjektu pasiboak, sortzapena gertatzen den ekitaldiko urtarrilaren 1ean Foru Aldundiak likidatutako azken ekitaldiari dagokion Errentaren Aitorpena aurkeztu beharko du, baldin eta aitopen hori egitea derrigorrezkoa ez bada, ekitaldi horretan lortutako diru-sarrerak egiaztatzen dituen dokumentazioa.

Bonificaciones

En las transmisiones de terrenos, y en la transmisión o constitución de derechos reales de goce limitativo del dominio, realizadas a título lucrativo por causa de muerte, se aplicará una bonificación en la cuota del Impuesto según el porcentaje señalado cuando los adquirentes sean sus descendientes o adoptados en primer grado, sus ascendientes o adoptantes en primer grado, y el cónyuge o pareja de hecho, cuando se trate de parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo; la bonificación se aplicará si el bien adquirido es la vivienda habitual del heredero y si sus ingresos brutos están en alguno de los tramos siguientes:

95 % hasta 27.200,00 euros.

75 % hasta 37.200,00 euros.

50% hasta 47.200,00 euros.

10 %: Resto ingresos

A efectos de aplicar esta bonificación, para la valoración de los ingresos se deberá presentar, por el sujeto pasivo, Declaración de la Renta correspondiente al último ejercicio liquidado por la Diputación Foral a 1 de enero del ejercicio en que se produce el devengo, en caso de no obligatoriedad de realizar tal Declaración, documentación acreditativa de los ingresos obtenidos en dicho ejercicio.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA

- Udal koefizientea: 1,25000
- Kaleen kategoria bakarra: indizea 1

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Potentzia eta mota

Euroak

a) Turismoak

9zf baino gutxiago	25,75
9tik 11,99 zf bitartekoak	51,49
12tik 13,99 zf bitartekoak	85,82
14tik 15,99 zf bitartekoak	120,15
16tik 19,99 zf bitartekoak	154,48
20 zf baino gehiago	188,80

b) Autobusak

21 plazatik behera	116,62
21 plazatik 50era	166,10
50 plazatik gora	207,62

c) Kamioiak

1.000 kg-tik beherako ke	59,19
1.000tik 2.999 kg-rako ke	116,62
2.999tik 9.999 kg-rako ke	166,10
9.999 kg-tik gorako ke	207,62

d) Traktoreak

16 zf baino gutxiago	24,74
16tik 25 zf bitartekoak	38,88
25 zf baino gehiago	116,62

e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak

IMPUESTO DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS

- Coeficiente municipal: 1,25000
- Categoría de calles única: índice 1

IMPUESTO DE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA

Potencia y clase Euros

a. Turismos

De menos de 9 cf	25,75
De 9 a 11,99 cf	51,49
De 12 a 13,99 cf	85,82
De 14 a 15,99 cf	120,15
De 16 a 19,99 cf	154,48
Más de 20 cf	188,80

b) Autobuses

Menos de 21 plazas	116,62
De 21 a 50 plazas	166,10
Más de 50 plazas	207,62


c) Camiones

Menos de 1.000 kg.cu	59,19
De 1000 kg. a 2.999 kg.cu	116,62
De más de 2.999 a 9.999 kg.cu	166,10
Más de 9.999 kg.cu	207,62

d) Tractores

Menos de 16 cf	24,74
De 16 a 25 cf	38,88
Más de 25 cf	116,62

e) Remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

1.000 baino gutxiago eta 750 kg. baino gehiagoko ke	24,74
1.000 tik 2.999 kg. bitarteko ke	38,88
2.999 kg baino gehiagoko ke	116,62

Menos de 1.000 y más de 750 kg.cu	24,74
De 1.000 a 2.999 kg.cu	38,88
Más de 2.999 kg.cu	116,62

f) Bestelako ibilgailuak

Ziklomotoreak	6,31
125 cc baino gutxiagoko motozikletak	6,31
125 cc baino gehiago eta 250 cc bitarteko motozikletak	10,81
250 cc baino gehiago eta 500 cc bitarteko motozikletak	21,63
500 cc baino gehiago eta 1.000 cc bitarteko motozikletak	43,26
1.000 cc baino gehiagoko motozikletak	86,51

f) Otros vehículos

Ciclomotores	6,31
Motocicletas hasta 125 cc	6,31
Motocicletas de más de 125 cc hasta 250 cc	10,81
Motocicletas de más de 250 cc hasta 500 cc	21,63
Motocicletas de más de 500 cc hasta 1.000 cc	43,26
Motocicletas de más de 1.000 cc	86,51

Hobariak

1.- %100eko hobaria ezartzen da ibilgailu historikoetarako edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita hamar urteko antzinatasuna duten ibilgailuetarako. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

2.- Turismo, autobus eta kamioi motako ibilgailuek hobaria izango dute zerga kuotan, kontsumitzen duten erregai motaren arabera, motorraren ezaugarrien arabera eta erregai horren errekuntzak ingurugiroan duen eraginaren arabera, beti ere ondoren zehazten diren baldintzak eta betebeharrak betetzen badira:


A) Fabrikako homologazioaren arabera, erregai gisa gasa erabiltzen duten ibilgailuak badira eta isurpen kutsagarriak gutxitzeko,

Bonificaciones

1.- Se establece una bonificación del 100 por 100 para los vehículos históricos o aquellos que tengan una antigüedad mínima de treinta años, contados a partir de la fecha de su fabricación o, si ésta no se conociera, tomando como tal la de su primera matriculación o, en su defecto, la fecha en que el correspondiente tipo o variante se dejó de fabricar.

2.- Los vehículos automóviles de las clases turismos, camiones y autobuses disfrutaran en los términos que se disponen en los siguientes apartados, de una bonificación de la cuota del impuesto en función de la clase de carburante utilizado, de las características del motor y de su incidencia en el medio ambiente, siempre que se cumplan las condiciones y requisitos que se especifican a continuación:

A) Que se trate de vehículos que, según su homologación de fábrica, utilicen el gas como combustible e incorporen dispositivos



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
 (GIPUZKOA)

bere mota eta modeloarentzat egokiak diren tresna katalizatzaileez hornituak badaude: %50-eko hobaria.

B) Fabrikako homologazioaren arabera, ibilgailu hibridoak badira (elektriko-gasolina, elektriko diesel edo elektriko-gasa motorrak) eta isurpen kutsagarriak gutxitzeko, bere mota eta modeloarentzat egokiak diren tresna katalizatzaileez hornituak badaude: %50-eko hobaria.

C) Isurpen gabeak edota, motor elektrikoa duten ibilgailuak badira: %95-ko hobaria.

Aurreikusitako hobariak jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboek hobaria eskatzea, ibilgailu berriaren ezaugarrien fitxa teknikoa erantsiz.

catalizadores, adecuados a su clase y modelo, que minimicen las emisiones contaminantes: bonificación del 50%.

B) Que se trate de vehículos híbridos (motor eléctrico-gasolina, eléctrico-diésel o eléctrico-gas) que estén homologados de fábrica, incorporando dispositivos catalizadores, adecuados a su clase y modelo, que minimicen las emisiones contaminantes: bonificación del 50%.

C) Que se trate de vehículos de motor eléctrico y/o de emisiones nulas: bonificación del 95%.

Para poder gozar de la citada bonificación, el sujeto pasivo solicitará dicha bonificación aportando ficha técnica de las características del vehículo nuevo.

2.- TASAK ZERBITZUEN PRESTAKUNTZA-GATIK

▪ **Uraren Hornidurako Zerbitzuak Eskaintzeagatik Tasa. (Hiru hilabetekoa)**

a) Etxeetako erabilera

Kontagailua:	9,00€/
hiruhileroko	
12m ³ -rarte	0,36 €/m ³
12-60 m ³ bitartean:	0,51 €/m ³
60-90m ³ bitartean:	0,81 €/m ³
90-200 m ³ bitartean:	0,96 €/m ³
200-500 m ³ bitartean:	1,03 €/m ³
500 m ³ -tik aurrera:	1,48 €/m ³

b) Erabilera industrial

2.- TASAS POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS

▪ **Tasa por la Prestación del Servicio del Suministro de Agua. (Trimestral)**

a) Uso doméstico

Contador:	9,00€/
trimestre	
Hasta 12 m ³ :	0,36 €/m ³
De 12-60m ³ :	0,51 €/m ³
De 60m ³ a 90 m ³ :	0,81 €/m ³
De 90m ³ a 200 m ³ :	0,96 €/m ³
De 200 m ³ a 500 m ³ :	1,03 €/m ³
Superior a 500 m ³ :	1,48 €/m ³

b) Uso industrial



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
 (GIPUZKOA)

Kontagailua:	
25,00 €/hiruhileroko	
200 m3 arte:	1,03 €/m3
200-500 m3 bitartean:	1,25 €/m3
500 m3-tik aurrera:	1,48 €/m3

Contador:	25,00 €/
trimestre	
Hasta 200 m3:	1,03 €/m3
De 200 a 500 m3:	1,25 €/m3
Superior a 500 m3:	1,48 €/m3

• Saneamendu eta azpiegituren kanona:

200m3-tik aurrera:	0,30 €/m3
--------------------	-----------

• Canon de saneamiento e infraestructuras:

Superior a 200 m ³ :	0,30 €/m3
---------------------------------	-----------

c) Nekazal erabilera:

Kontagailua:	
9,00€/hiruhileroko	
0-90 m3 bitartean:	0,50 €/m3
90-200m3 bitartean:	0,79 €/m3
200-500m3 bitartean:	0,94 €/m3
500 m3-tik aurrera:	1,01 €/m3

c) Uso agrario

Contador:	
9,00€/trimestre	
De 0m3 a 90 m3:	0,50 €/m3
De 90m3 a 200m3:	0,79 €/m3
De 200m3 a 500m3:	0,94 €/m3
Superior a 500 m3:	1,01 €/m3

Nekazal erabileraren tarifa aplikatzeko irizpideak:

Nekazal erabilerari dagokion tarifa aplikatu ahal izateko, etxebizitza zoru ez urbanizagarrian kokatuta egotea ezinbestekoa izango da eta nekazal ustiakuntza bati lotuta.

Criterios de aplicación de la tarifa de uso agrario:

Para la aplicación correspondiente al uso agrario, será indispensable que la vivienda esté situada en suelo no urbanizable y que esté vinculada a una explotación agraria.

▪ **Kontagailuak altan emateagatiko Tasa**

▪ **Tasa por alta de contadores**

KONTAGAILUAREN KALIBREA	€	CALIBRE CONTADOR	€
13 mm o 1/2" -raino	50,60	Hasta 13 mm o 1/2"	50,60



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

15 mm -raino	50,60	Hasta 15 mm	50,60
20 mm edo 3/4"-raino	65,04	Hasta 20 mm o 3/4"	65,04
25 mm edo 1"-raino	65,47	Hasta 25 mm o 1"	65,47
30 mm edo 1 1/4"-raino	76,60	Hasta 30 mm o 1 1/4"	76,60
40 mm edo 1 1/2"-raino	85,41	Hasta 40 mm o 1 1/2"	85,41
50 mm edo 2"-raino	96,90	Hasta 50 mm o 2"	96,90
65 mm edo 2 1/2"-raino	97,47	Hasta 65 mm o 2 1/2"	97,47
80 mm edo 3"-raino	131,59	Hasta 80 mm o 3"	131,59
100 mm edo 4"-raino	151,92	Hasta 100 mm o 4"	151,92
150 mm edo 6"-raino	189,48	Hasta 150 mm o 6"	189,48

ZABORRA BILTZEKO ZERBITZUA
ESKAINTEAGATIKO TASA (URTEKOA)

Etxebizitzak: 112 €urtean (28 €hiru hilean)

Elkarteak, tabernak eta jatetxeak: 312 €urtean (78 €hiru hilean).

Berariazko edukiontzirik ez duten merkataritza- eta industria-establezimenduak: 312 €urtean (78 €hiru hilean).

Hondar edo "errefusa" frakzioko edukiontzirik ez duten baina haiantzako

TASA POR LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO
DE RECOGIDA DE BASURA (ANUAL)

Viviendas: 112 € anual (28€ al trimestre)

Sociedades recreativas, bares y restaurantes: 312 € anual (78€ al trimestre).

Establecimientos Comerciales e industriales sin contenedores específicos para ellos : 312 € anual (78€ al trimestre).

Establecimientos Comerciales e industriales ubicados en polígonos



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

beste edukiontzi-mota espezifiko bat duten Industrialdeetan kokatutako merkataritza- eta industria-establezimenduak: 760 €urtean (190 €hiruhilekoan).

Industrialdeetan kokatutako enpresak, hondar edo "errefusa" frakzioko edukiontzi espezifikoak dituztenak:

Hondar edo "errefusa" frakzioko 1.000 litroko edukiontzi bakoitzeko: 1.000 €urtean (250 €hiru hilean).

Hondar edo "errefusa" frakzioko 360 litroko edukiontzi bakoitzeko: 760 €urtean (190 €hiru hilean).

Tarifa aplikatzeko irizpideak:

- Ordaintzeko obligazioa izango dute etxebizitzan eta industri zein merkatal establezimenduen maizter eta okupanteak, hauek erabiliak edo okupatuak egon edo ez.
- Olaberriko Udalak enpresa bakoitzak dituen edukiontzien kopuru zehatza zein den jakiteko, Sasieta Mankomunitateari hiru hilean behin ziurtagiri bat eskatuko dio, eta tasa horren sortzapen-data urte bakoitzeko urtarrilaren 1a, apirila, uztaila eta urria izango da.

**FRONTOIAREN ERABILERAGATIK
ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

industriales sin contenedores de fracción resto o "rechazo" pero que si tienen otro tipo de contenedores específicos para ellos : 760 € anual (190€ al trimestre).

Empresas ubicadas en polígonos industriales con contenedores específicos de fracción resto o "rechazo":

Por cada contenedor de 1.000 litros de fracción resto o "rechazo": 1.000€ anual (250€ al trimestre).

Por cada contenedor de 360 litros de fracción resto o "rechazo": 760€ anual (190€ al trimestre).

Criterios de aplicación de la tarifa:

- La obligación de contribuir será obligatoria para todos los arrendatarios y ocupantes de las viviendas y establecimientos comerciales e industriales, sin que obste en contrario el hecho de su no utilización.
- Para conocer el número exacto de contenedores con el que cuenta cada empresa el Ayuntamiento de Olaberria solicitará a la Mancomunidad Sasieta una certificación trimestral en este sentido, siendo las fechas de devengo de esta tasa el 1 de enero, abril, julio y octubre de cada año.

TASAS POR UTILIZACIÓN DEL FRONTÓN



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

A.- Erabilpen Puntualak

- Olaberriko bizilagunak..... 3€/ordua
- Beste herrietako bizilagunak..... 6€/ordua

B.- Bonoak (6 hilabeterako)

- Olaberriko bizilagunak..... 65€/ordua x eguna
- Beste herrietako bizilagunak.. 130€/ordua x eguna

**TENIS PISTAK ERABILERAGATIK
ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

- Olaberriko bizilagunak.....3€/ordua
- Beste herrietako bizilagunak..... 6€/ordua

- Bonoak (6 hilabeterako)

- Olaberriko bizilagunak..... 65€/ordua x eguna
- Beste herrietako bizilagunak.. 130€/ordua x eguna

**GIMNASIOAREN ERABILERAGATIK
ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

A. Utilizaciones Puntuales

- Vecinos de Olaberria..... 3€/hora
- Vecinos de otras localidades.....6€/ hora

B.- Bonos (para 6 meses)

- Vecinos de Olaberria..... 65€/hora x día
- Vecinos de otras localidades.....130€/ hora x día

**.TASAS POR UTILIZACIÓN DE LAS PISTAS DE
TENIS**

- Vecinos de Olaberria..... 3€/hora
- Vecinos de otras localidades..... 6€/hora

- Bonos (para 6 meses)

TASAS POR UTILIZACIÓN DEL GIMNASIO



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

A.- Erabilpen Puntualak

- Olaberriko bizilagunak..... 3€/ordua
- Beste herrietako bizilagunak..... 6€/ ordua

B.- Bonoak (6 hilabeterako)

- Olaberriko bizilagunak..... 65€/ordua x eguna
- Beste herrietako bizilagunak.. 130€/ ordua x eguna

**LUDOTEKA
ERABILERAGATIK
BEHARREKO TASAK**

**ZERBITZUAREN
ORDAINDU**

A. Utilizaciones Puntuales

- Vecinos de Olaberria..... 3€/hora
- Vecinos de otras localidades.....6€/ hora

B.- Bonos (para 6 meses)

- Vecinos de Olaberria..... 65€/hora x día
- Vecinos de otras localidades.....130€/ hora x día

**TASAS POR LA UTILIZACIÓN DEL SERVICIO DE
LUDOTECA**



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

<p><u>.Ikasturte osoa (urritik ekainerarte, biak barne) /Todo el curso (de octubre a junio, ambos inclusive)</u></p>	<p>.1. seme-alabak/1hij@: 60 € 2.seme-alabak/2 hij@: 45 € .3. seme-alabak/3 hij@: dohain/gratis</p>
<p><u>.Eguberri eta Aste Santuko oporrak</u> <u>Vacaciones de Navidad y Semana Santa</u></p>	<p>.Ludotekako Sozioak direnak/para socios</p> <p>.1. Seme alaba/1hij@: 16 € .2. Seme alaba/2 hij@: 13 € .3. Seme alaba/:3hij@: 10 €</p> <p>.Ludotekako Sozioak EZ direnak/ para los que NO son socios</p> <p>.1. Seme alaba/1hij@: 20 € .2. Seme alaba/2 hij@: 18 € .3. Seme alaba/3 hij@: 15 €</p>
<p><u>.Uztaileko ludoteka zerbitzua/Servicio de ludoteca en el mes de julio</u></p>	<p>.HAUR UDALEKUAK/COLONIAS INFANTILES:</p> <p>.Ludotekako bazkide direnak/ para socios</p> <p>.1. Seme alaba/1hij@: 40 € .2. Seme alaba/2 hij@: 30 € .3. seme alaba/3 hij@: 20 €</p> <p>.Ludotekako bazkide ez direnak/para los que no son socios</p> <p>.1. Seme alaba/1hij@: 50 € .2. Seme alaba/2 hij@: 40 € .3. Seme alaba/3 hij@: 30 €</p> <p>.NERABE UDALEKUAK/COLONIAS DE ADOLESCENTES</p> <p>.Bazkide direnak/ para socios: 60 € .Bazkide EZ direnak/ NO socios: 70€</p> <p>.GAZTE UDALEKUAK/COLONIAS JUVENILES</p> <p>.Partaideek/ Participantes: 90 €</p>



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Tasaren aplikazio irizpideak:

.- Olaberrikoak ez diren erabiltzaileek, zerbitzuaren kostu osoa ordaindu beharko dute.

.- Olaberrian erroldatutakoek lehenatasuna edukiko dute.

Criterios para la aplicación de las tasas:

.- Los usuarios que no sean de Olaberria, tendrán que abonar el costo total del servicio.

.- Tendrán prioridad las personas empadronadas en Olaberria.

**KULTURA SAILEKO IKASTAROENGATIKO TASAK/TASAS POR
CURSILLOS DEL ÁREA DE CULTURA**

HIRUHILEKOA / TRIMESTRAL

Aerobic 75 € / 90* €

Zumba 75 € / 90* €

Pilates 75 € / 90* €

Pilota 75 € / 75* €

Taila/talla 54 €

Txalaparta 60 € / 78* €

* Herritarrak ez direnak/ No residentes.

APLIKAGARRI DIREN IRIZPIDEAK / CRITERIOS APLICABLES

- Erabiltzaileek hiruhileko osoa ordaindu beharko dute nahiz eta ez joan. / El usuario deberá abonar el trimestre completo, vaya o no.
- Bajan eman nahi duen erabiltzaileak Udalarari jakinarazi beharko dio, idatziz, eta hurrengo hiruhilabetea hasi baino lehen / El usuario que quiera darse de baja, tendrá que comunicarlo al Ayuntamiento, por escrito, con anterioridad al inicio del período siguiente.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

▪ **HILETA ZERBITZUAK ESKAINTZEGATIKO TASAK**

- Lurperatzea eta nitxoak 10 urtez lagatzeagatik: 200,00 euro gehi plakaren kostua.

%90eko **hobaria** aplikatuko da, zentzeko garaian Olaberrian erroldatuta zeudenentzako.

3.- TASAK JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAGATIK

UDAL BIDE PUBLIKOEN LURZORU, LURPE EDO HEGALKINAREN ERABILPEN PRIBATIBOA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA

- Enpresa banatzaile eta komertzializatzaileek udal barrutian urtean eskuratzen duten fakturaziotik datozen sarrera gordinen %1,5.

IBILBIDE LIZENTZIAGATIKO TASA

- Industri eta merkatal establezimendu zein ibilgailu gordeleku diren lokalentzat.....51,50 €/ urtean.

.- Etxebizitza bati atxikitutako garaje eta famili bakarreko etxebizitzak dituzten sailentzat.....25,75 €/urtean.

▪ **TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS FUNERARIOS**

- Inhumación y cesión del nicho por 10 años: 200,00 euros más el costo de la placa.

Se aplicará una **bonificación** del 90% para aquellas personas que en el momento de fallecer estuvieran empadronadas en Olaberria.

3. TASA POR LA UTILIZACIÓN ESPECIAL DEL DOMINIO PUBLICO

TASA POR LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL VUELO, SUELO Y SUBSUELO DE LAS VÍAS PÚBLICAS

- 1,5% de los ingresos brutos procedentes de la facturación que obtengan anualmente en el término municipal las empresas distribuidoras y comercializadoras.

TASA POR LICENCIA DE VADO

- Para establecimientos industriales, comerciales y locales destinados a guarda de vehículos.....51,50 €/año.

- Para Garajes vinculados a vivienda y fincas con viviendas unifamiliares.....25,75 €/año.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO
LIZENTZIAK EMATEAGATIK ORDAINDU
BEHARREKO TASAK (€/JARDUERAREN
OKUPAZIOZKO M2)**

Sailkatutako jarduerak:

-Aurretiazko jakinarazpenari lotutakoak:
8,58 €/m²

Tasaren kopurua 5.365 € izango da gehienez

*Lizentzia administratiboko erregimenera
lotuta dauden jarduerak:*

1.- Euskal Herriko ingurugiroa babesteko
otsailaren 27ko 3/1998 Legearen aldaketa
indarrean sartu baino LEHEN hasitako
espedientea duten baimen administratiboko
arabidiera lotutako jarduerentzat

-Jarduera lizentzia:.....2,15 €/m².
- Irekitzeko lizentzia:.....8,58 €/m².

2.- Euskal Herriko ingurugiroa babesteko
otsailaren 27ko 3/1998 Legearen aldaketa
indarrean sartu ONDOREN hasitako
espedientea duten baimen administratiboko
arabidiera lotutako jarduerentzat

-Jarduera lizentzia:.....10,73
€/m².

Nolanahi ere, jarduerengatik ordaindu
beharreko tasa gehienez 10.730 € izango da.

**TASA POR EL OTORGAMIENTO DE
LICENCIAS DE APERTURA DE
ESTABLECIMIENTOS (€/M2.DE
OCUPACIÓN DE LA ACTIVIDAD))**

Actividades clasificadas:

-Sometidas al régimen de comunicación previa:
8,58 €/m²

Importe máximo de la tasa es de 5.365 €

*- Actividades clasificadas sujetas al régimen
de licencia administrativa:*

*1.- Para las actividades clasificadas sujetas
al régimen de licencia administrativa cuyo
expediente se haya iniciado con
ANTERIORIDAD a la entrada en vigor de la
modificación de la Ley 3/1998, de 27 de
febrero, General de Protección del Medio
Ambiente del País Vasco :*

*- Licencia actividad:..... .2,15 €/m².
- Licencia apertura:.....8,58 €/m².*

*2.- Para las actividades clasificadas sujetas
al régimen de licencia administrativa cuyo
expediente se haya iniciado con
POSTERIORIDAD a la entrada en vigor de la
modificación de la Ley 3/1998, de 27 de
febrero, General de Protección del Medio
Ambiente del País Vasco :*

- Licencia actividad:.....10,73 €/m².

*En todo caso, la cantidad máxima a abonar
por las actividades será de 10.730 €.*



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Aipatu tasen kuotarekiko %75 –eko hobaria aplikatuko zaie nekazal ustiapen titular diren zergadunei, tasen objektua nekazal ustiapena baldin bada.

Tendrán una bonificación del 75% de la cuota los contribuyentes titulares de explotaciones agrarias, siempre y cuando el objeto de las tasas a las que se hacen referencia sea la explotación agraria..

OBREN LIZIENTZI TASA

3.000 eta 14.000 €rainoko obrak100,00 €
14.000,01 eta 35.000 € bitarte360,00 €
35.000,01 €tik gorako obrak600,00 €

Aipatu tasen kuotarekiko %75 –eko **hobaria** aplikatuko zaie nekazal ustiapen titular diren zergadunei, beti ere tasen objektua nekazal ustiapena baldin bada.

TASA LICENCIA DE OBRAS

Por obras entre 3.000€ y 14.000 €.....100,00€
Entre 14.000,01 y 35.000 €360,00€
Por obras superiores a 35.000,01 €600,00 €

Tendrán una **bonificación** del 75% de la cuota los contribuyentes titulares de explotaciones agrarias, siempre y cuando el objeto de las tasas a las que se hacen referencia sea la explotación agraria.

**LEHEN OKUPAZIORAKO LIZENTZI TASA
(€/KONTSUMITUTAKO
ERAIKIGARRITASUNAREN M2)**

Etxebizitza bakoitzeko.....100 €
Merkatal lokala, €/m2.ko.....1,70 €
Industri Pabiloi, modulua eta antzekoak (m2. ko)
.....3,00 €

Aipatu tasen kuotarekiko %75 –eko **hobaria** aplikatuko zaie nekazal ustiapen titular diren zergadunei, beti ere tasen objektua nekazal ustiapena baldin bada.

**TASA POR LICENCIAS DE PRIMERA
OCUPACIÓN (€/M2 DE EDIFICABILIDAD
CONSUMIDA)**

Por vivienda.....100 €
Por local comercial €/m2.....1,70 €
Por pabellón, módulo industrial y asimilados
€/m2.....3,00 €

Tendrán una **bonificación** del 75% de la cuota los contribuyentes titulares de explotaciones agrarias, siempre y cuando el objeto de las tasas a las que se hacen referencia sea la explotación agraria.

**HIRIGINTZA TXOSTENAK EMATEAGATI
TASA**

Hirigintza kontsultak.....60,00 €

**TASA POR EXPEDICIÓN DE INFORMES
URBANÍSTICOS**

Consultas Urbanísticas.....60,00€

UDAL IGERILEKUAK ERABILI AHAL

PRECIOS PÚBLICOS PARA LA UTILIZACIÓN



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

IZATEKO PREZIO PUBLIKOAK

DE LA PISCINA MUNICIPAL

BONOAK / BONOS	
Banakako heldua / adulto individual	46,20 €
Banakako haurra / niño individual	25,00 €
Familiarra / familiar	80,30 €
Helduen eguneko 10 sarrera/ 10 entradas de adulto individual	40,00 €
EGUNEKOAK / DIARIOS	
Eguneko heldua / adulto diario	5,00 €
Eguneko haurra / niño diario	2,00 €
0-2 urtera / de 0 a 2 años	DOHAIN / GRATUITO
3 urtetik 14 urtera/ de 3 a 14 años	HAURRA / NIÑO
15 urtetik aurrera / de 15 años en adelante	HELDUA/ ADULTO
Bono familiarrean sartzen diren pertsonak / Personas incluidas en el bono familiar	Ama, aita (edo bere kasuan legezko tutoreak) eta adin-txikiko seme-alabak / Madre, padre (o en su caso tutores legales) y las hijas e hijos menores de edad.

Hobariak

- Olaberrian erroldatuta dauden pertsonen % 10eko hobaria aplikatuko zaie.

Bonificaciones

- Se aplicará una bonificación del 10% a las personas empadronadas en Olaberria.